

Otsailaren 1eko 49/1995 FORU AGINDUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartzen dituen.

Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak emandako urtarrilaren 13ko 3/1993, urtarrilaren 28ko 25/1993 eta martxoaren 17ko 127/1993 Foru Aginduek, hurrenez hurren, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidaziorako 308 eta 309; 300, 320 eta 330; eta, azkenik, 310 eta 370 ereduak onartu zituzten.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauterian izandako azken aldaketen ondorioz, aipatu ereduak aldatu eta egokitu behar dira.

Horrela bada, hau

XEDATU DUT:

1. Artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidaziorako 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartzea.¹

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hiruhileko aitorpen-likidaziorako 300 ereduak onartzen da, foru agindu honen I. eraskinean agertzen dena.

Zergaren erregimen berezia edo Zergaren beste edozein erregimen aplikatzen zaien iharduerak burutzen dituzten sujetu pasiboek erabili beharko dute eredu hori, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia, baliokidetasun gainkarguaren erregimena eta erregimen sinplifikatua izan ezik, eta, beti ere, 320 eta 330 ereduak erabili behar ez badituzte.

Bi. "Itzulketa eskatzea. Baliokidetzatza gainkargua eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren noizbehinkako sujetu pasiboak" 308 eredu berria onartzen da, foru agindu honen II. eraskinean agertzen dena.

Aipatu ereduak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sujetu pasibo hauek erabili beharko dute:

a) Noizbehinka garraiobide berrien Elkarteko barneko emanaldiak egiten dituzten, eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 94. artikuluan, bigarren apartatua, xedatutakoaren arabera, emanaldiaren gai den garraiobidea eskuratzeko jasan edo ordaindu dituzten kuoten itzulketa eskatu duten sujetu pasiboek.

b) Soilik baliokidetasun gainkarguko erregimen berezia aplikagarria duten iharduerak egiten dituzten subjektu pasiboek, Gipuzkoako Foru Ogasunari burututako eta Zerga ordaindu behar ez duten ondasunen emanaldiengatik bidaiariei errenboltsatutako kuotak itzultzea eska diezaiotenean, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 117. artikuluan xedatutakoaren arabera.

¹ Eredu hauek ikusteko "zerga aitorpenak" apartatura jo beharko duzue

Hiru. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ez-aldizkako aitorpen-likidaziorako 309 eredu berria onartzen da, Foru Agindu honen III. eraskinean agertzen dena.

309 eredua jarraian aipatzen diren subjeto pasiboek erabiliko dute, ondasunen Elkartean barneko eskurapenak egiten dituzten eta, aurreko urtean edo aurturaren egindako Elkartean barneko eskurapenak pezetatan 10.000 ECUS-i dagokien kopurura iristeagatik, edo abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 14. artikuluan aurrikusitako aukera gauzatzeagatik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikaturik dauden heinean:

a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezia duten subjeto pasiboek.

b) Zergaren guztizko edo zatiko kenkarirako eskubidea sortzen ez duten eragiketak soilik egiten dituzten subjeto pasiboek.

c) Enpresari edo profesionari gisa ez diharduten pertsona juridikoek.

Aurreko paragrafoan aipatutako Elkartean barneko eskurapenak egin ditzatenetan ez ezik, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian sartuta dauden subjeto pasiboek zergapetutako eta salbuetsi gabeko ondasun higiezinaren emanaldiak eta, bere ihardunean, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 84. artikuluan, bat apartatuan, 2. zenbakian aipatutako eragiketak egin ditzatenean ere 309 eredua aurkeztuko dute.

Era berean, aipatu eredua aurkeztu beharko dute ondasunen Elkartean barneko eskurapenak eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak 84. artikuluan, bat apartatuan, 2. zenbakian aipatutako eragiketak egiten dituzten subjeto pasiboek. Eragiketei baliokidetasun gaitzarguaren erregimen berezia ezarriko zaie.

Halaber, enpresari edo profesionari izaera ez duten eta, kostubidez, garraiobide berrien Elkartean barneko eskurapenak egiten dituzten pertsona edo entitateek 309 eredua aurkeztu beharko dute.

Lau.² Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuaren hiruhileko aitorpen-likidaziorako 310 eredu berria onartzen da, foru agindu honen IV. eraskinean agertzen dena.

Aipatu eredua beren iharduera guztiak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuan dituzten subjeto pasiboek erabili beharko dute.

Bost. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko aitorpen-likidaziorako 320 eredu berria -Enpresa Handiak- onartzen da, foru agindu honen V. eraskinean agertzen dena.

Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuko 121. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturako eragiketen kopuruak aurreko lehen urte naturalean 1.000 milioi pezeta gainditu ez duenean, erabili beharko dute eredu hori subjeto pasiboek, beti ere 330 eredua erabili behar ez badute.

² Eredu hau aldatu egin da eta martxoaren 17ko 239/1998 FORU AGINDUAK onartutakoa dago orain indarrean. Foru agindu horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidaziorako 310 eredua onartzen du. 1998. urteko martxoaren 27an sartu zen indarrean.

Sei. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko aitopen-likidaziorako 330 eredu berria -Esportatzaileak eta Elkartek barneko eragiketagileak- onartzen da, foru agindu honen VI. eraskinean agertzen dena.

Aurreko lehen urte naturalean edo urte natural honetan abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuko 116. artikuluan aipatutako eragiketak 20 milioi pezetako zenbateko osoaren gainetik egin dituzten sujetu pasiboek erabili beharko dute eredu hori, beti ere, Esportatzaileen Erregistroan inskribatuta badaude.

Zazpi.³ Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztu eta orokorraren hiruhileko aitopen-likidaziorako 370 eredu berria onartzen da, foru agindu honen VII. eraskinean agertzen dena.

Aipatu eredua beren iharduera guztiak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregimen Berezi Erraztuan eta Erregimen Orokorrean dituzten subjektu pasiboek erabili beharko dute.

Zortzi. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitopen-likidazioa Gipuzkoako Foru Aldundian besterik aurkeztu behar ez duten subjektu pasiboek nahiz, herrialde bakoitzean egindako eragiketa kopuruaren arabera, Foru Aldundian aurkezteaz gainera beste Zerga Administrazio batzuetan aurkeztu behar duten subjektu pasiboek erabili beharko dituzte aurreko bat, bost eta sei ataletan aipatzen diren 300, 320 eta 330 ereduak.

2. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak aurkezteko epea.

Bat. 300 eredua hiruhilero aurkeztu eta, hala dagokionean, ordainduko da, apiril uztail eta urriaren lehen hogeita bost egun naturaletan.

Urteko laugarren hiruhilekoaren aitopen-likidazioa “urteko laburpena” aitopen-likidazioan, hau da 390 ereduan, sartuko da, eta aurkezteko epea hurrengo urteko urtarrilaren hogeitamar arte izango da.

Bi. Foru Aginduko 1. artikuluko bigarren zenbakiko a) apartatuan aipatzen diren subjektu pasiboek garraiobide-aren emanaldia egin eta biharamunetik hasita hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztuko dute 308 eredua.

Kasu honetan, aipatu eredua emandako ibilgailu bakoitzeko aurkeztu beharko da, eta ezin izango da bi edo ibilgailu gehiago batera likidatu, ez eta eredu bakarrean likidatu ere garraiobide berrien Elkartek barneko emanaldiak eta bidaiari erregimenean egindako esportazioengatik baliokidetasun gaitzarguko erregimena duten subjektu pasiboentzako itzulketak.

Foru Aginduko 1. artikuluko bigarren zenbakiko b) apartatuan aipatzen diren subjektu pasiboek urteko hiruhileko bakoitza amaitu ondorengo hilabeteko lehenengo hogieta bost egun naturaletan aurkeztuko dute 308 eredua. Hortik kanpo gelditzen da azkeneko likidazioaldia, hurrengo urteko urtarrileko lehenengo hogeitamar egun naturaletan aurkeztu beharko baita.

³ Eredu hau aldatu egin da eta martxoaren 27ko 267/1998 FORU AGINDUAK onartutakoa dago orain indarrean. Foru agindu horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitopen-likidaziorako 370 eredu onartzen du. 1998. urteko apirilaren 7an sartu zen indarrean.

Oraingo honetan, hiruhileko bakoitzari dagokion aitorten-likidazioan subjektu pasiboak efektiboki egindako itzulketak bakarrik konpu-tatuko dira.

Hiru. 309 ereduaren aurkezpena eta haren ondoriozko dirusarrera hiruhilabeteko likidaziorako epea amaitzen den ondorengo hilabeteko lehenengo hogeita bost egun naturaletan egingo da, azkeneko likidazioaldiari dagokiona izan ezik, hura hurrengo urteko urtarileko lehenengo hogeitamar egunetan aurkeztuko baita.

Aurreko apartatuan xedatutakotik salbuesten dira garraiobide berrien Elkarre barneko eskurapenei dagozkien aitorten-likidazioak, horien kasuan 309 eredu garraiobidea eskuratu eta hogeitamar egun naturaleko epean aurkeztuko da eta, beti ere, garraiobidea behin-betiko matrikulatu aurretik.

Lau. 310 eta 370 ereduak hiruhilero aurkeztu eta, kasua balitz, ordaindu behar dira, ondorengo epeetan:

- Lehenengo, bigarren eta hirugarren hiruhilekoenak, hurrenez hurren, apiril, uztail eta urriaren 1etik 25era bitartean.

- Laugarren hiruhilekoaren aitorten-likidazioa, "urteko aitortena" aitorten-likidazioan sartuko da, eta aurkezteko epea hurrengo urteko urtarilaren hogeitamarra arte izango da.

Bost. 320 eta 330 ereduak aurkeztu eta, hala dagokienean, ordainduko dira hileko likidazioaldia bukatu eta ondorengo lehen hogeita bost egun naturaletan.

Salbuespen gisa, uztailko aitortena eta, hala dagokionean, dirusarrera ondorengo abuztuaren 1a eta irailaren 25a bitartean aurkeztu eta ordainduko da.

Abenduko likidazioaldiko aitorten-likidazioak "urteko laburpena" aitorten-likidazioan sartuko dira, hots, 390 ereduan.

3. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak aurkezteko lekuak.

Bat. Aitorten positiboak direnean, zergabilketarako laguntzaile gisa aritzeko Zergabilketa Erregelamenduak xedatzen duen eran baimendutako entitate baten bitartez aurkeztuko dira (bankuak, aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak).

Bi. Aitorten negatiboak direnean (konpentsatzekoak edo itzultzekoak), aurreko bat apartatuan aipatutako entitate laguntzaileen bidez aurkezteaz gainera, Zergabilketa Bulegoetan edo Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztu ahal izango da.

4. artikulua.⁴

⁴ Artikulu hau otsailaren 8ko 114/1999 FORU AGINDUAK gehitu du. Foru agindu horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorten-likidazioa egiteko 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartzen dituen otsailaren 1eko 49/1995 Foru agindua aldatzen du. 1998. urteko apirilaren 7an sartzen da indarrean.

114/1999 FORU AGINDUAREN amaierako lehenengo xedapenean Ogasuneko zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko aitorten-likidazioa -Esportatzaile eta beste operadore ekonomiko batzuen- egiteko erabiltzen den 330 ereduari erantsi beharreko dokumentazioa alda dezan.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko aitorten-laburpena -Esportatzaile eta beste operadore ekonomiko batzuen- egiteko 330 ereduak aurkeztu behar duten subjektu pasiboek ondoko dokumentazio hau erantsi beharko dute itzulketa eskatzen duten bakoitzean:

A) Esportatzaileen eta beste operadore ekonomiko batzuen erregistroan inskribaturik dauden subjektu pasiboek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 30. artikuluen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen dituen eragiketak egiten dituztenean, honako hauek:

a) Aitortzen eta likidatzen den zergaldian egin diren eragiketen zerrenda, itzulketarako eskubidea ematen dutenean. Esportazioak izan badira, esportazioaren aitorten zenbakia eta balio estatistikoa adieraziko dira, eta Batasunaren barruko entregak izan badira, berriz, bezeroaren BEZarako IFZ eta fakturaren balioa.

b) Esportazio aitortzen kopia (DUA), esportazioak izan badira.

c) Salmenta fakturaren kopia, Batasunaren barruko entregak izan badira.

d) Aduanako agiriaren edo nazioarteko garraio gutunaren (CMR) kopia, aduanak bisatua, inportazioei lotutako zerbitzuak badira.

B) Esportatzaileen eta beste operadore ekonomiko batzuen erregistroan inskribaturik dauden subjektu pasiboek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 30. artikuluen 4. apartatua aipatzen dituen eragiketak egiten dituztenean, honako hauek:

a) Luzatutako fakturen liburua.

b) Zergaldi bakoitzean itzulketarako eskubidea ematen duten fakturen kopia.

c) Obra exekuzioengatik luzaturiko fakturak direnean, kobrantzaren frogagiriak ere aurkeztuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratzen dira Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak emandako urtarrilaren 13ko 3/1993, urtarrilaren 28ko 25/1993 eta martxoaren 17ko 127/1993 Foru Aginduak, hurrenez hurren, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorten-likidaziorako 308 eta 309; 300, 320 eta 330; eta, azkenik, 310 eta 370 ereduak onartu zituztenak.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru Agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.
